

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4785

*AGINDUA, 2014ko irailaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2015-2017 epealdiari dagokionez, oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa-proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoaren ahal zientifikoa eta teknologia areagotzeko premia dagoela ikusirik, izan ere, premia hori argi ikusten da bai jarduerak nazioartekotzea dela-eta, bai inpaktu zientifiko eta teknologiko handiko foroetan emaitzak argitaratzea dela-eta eta bai euskal gizartearen arazo sozial, teknologiko eta ekonomikoak konpontzen laguntzea dela-eta; eta talde ikertzaileen ikerketa-kalitatea sustatu eta sendotzearen; egokia da ikerketa oinarrizko eta aplikatuko proiektu zehatzak, sail honek kudeatuak, garatzeko proiektuarekin aurrera egitea.

Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia- eta teknologia-sistema sendotu egiten da deialdi honen bidez; izan ere, deialdi honek ezagutzaren garapenari lagundu egiten dio, baita erakunde ezberdinetako taldeen arteko koordinazioari ere. Era berean, beste deialdi batzuekin koordinatuta ere badago; hain zuzen ere, enpresekin lankidetzan teknologia berritzailea garatzera bideratutakoekin, alde batetik, eta bikaintasunezko ikerketa-unitateen eta ikerketa-taldeen baliabide materialak, giza baliabideak, antolamendua eta funtzionamendua sustatzea xede dutenekin, bestetik.

Kontuan izanik: 193/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen (2013ko apirilaren 24ko EHAA, 78. zk.).

Halaber, kontuan izan behar dira, batetik, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituena, eta bestetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuena.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura egindako gastu-espedienteen aurretiko izapideak arautu dituen Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduekin bat etorritik, hau

### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua hau da: beherago zehaztutako modalitateekin bat ikerketa-proiektuak gauzatzeko laguntza ekonomikoak ematea:

1. modalitatea:

Erakunde bakarreko ikertzaile-taldeen proiektuak.

2. modalitatea:

Proiektu berean, erakunde desberdinetako ikertzaile-taldeek parte hartzen duteneko lankidetzaproiektuak.

## 2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

1.– Agindu honen xede diren laguntzetarako 688.000 euro izango dira, guztira, honela banatuta: 304.000 euro 2015. ekitaldirako; 192.000 euro 2016. ekitaldirako, 144.000 euro 2017. ekitaldirako, eta 48.000 euro 2018. ekitaldirako. Diru hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-sailaren kontura emango da.

2.– Guztizko aurrekontuaren % 50 lehentasunez erabiliko da modalitateetako bakoitzeko proiektuak finantzatzeko. Modalitateetariko baten kreditu erabilgarria agortzen ez bada, beste bateko eskabide finantzarriak finantzatzeko erabiliko da.

3.– Aipatu zenbatekoa gehitu ahal izango da, guztira eskatutako laguntzen zenbatekoa kontuan hartuta eta erakunde kudeatzailearen beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren agortu gabe gera litezkeen aurrekontuen arabera, eta, betiere, haiek ebatzi aurretik. Zirkunstantzia hori gertatzen bada, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren bidez emango da horren berri.

## 3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Jarraian adierazten diren erakundeak izan daitezke deialdi honetako modalitateetan ikerketa-proiektuak egiteko laguntzen onuradun:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente akreditatuak, urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren 2. artikuluan azaltzen diren agente-kategorietan badaude (221/2002 Dekretua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarriak eguneratu zituen). Hona hemen artikuluko horretan zerrendatzen diren kategoriak:

- Oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketa-zentroak.
- Zentroak, departamentuak, sekzioak, institutuak edo unibertsitateetako beste ikerketa-unitate batzuk, EHUkoak izan ezik.
- Elkarlaneko ikerketa-zentroak.
- Teknologia-zentroak.
- Ikerketa-zentro sektorialak.

Deialdi honen helburuei dagokienez, honako hau joko da agente zientifiko-teknologikoen erregistroko zerrenda eguneratuztat: deialdirako eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, Ekonomia eta Lehiakortasun Saileko Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzak egiaztatua.

2.– Ezingo dute erakunde onuradun izan diru-laguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren baten eraginpean daudenek, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu-bazterkeriagatik zigortutakoek ere.

## 4. artikulua.– Ikertzaileen betekizunak.

1.– Erakunde onuradun bakoitzak bere plantillako diren ikertzaile-talde bat aurkeztuko du eskabidean, zeinak lan egingo baitu laguntzaren helburu den proiektuan. Ikertzaile bakoitza deialdiko eskabideak entregatzeko epea amaitu baino lehen kontratatu beharko du erakunde eskatzaileak, betiere gutxienez hark proiektuan izango duen partaidetzaren araberrako aldirako eta dedikaziorako. Ikertzaile nagusiak proiektuak irauten duen aldi osorako edo gehiagorako kontratua izango

du erakundearekin, betiere egikaritze-aldia eta 6.1 artikuluan ezarritako lau hilabeteko aldi gehigarria barne hartuta.

2.– Deialdi honetan eskatutako proiektua garatzen den urteetan, eskatutako edo emandako beste proiektu batzuetan konprometitutako orduak deklaratu beharko ditu ikertzaileetarako bakoitzak; eta pertsona bakoitzeko dedikazio osoari doakionez urteko 1.600 orduko maximoa kontuan izanik, ordu erabilgarri aski izan beharko ditu proiektu honetan konprometitutako jarduerak gauzatzeko.

3.– Pertsona bati obra-kontratua egiten zaionean, obraren iraupena, eta, hala badagokio, kontratuaren luzapena jasoko dira dokumentu batean; kontratua egin zaioneko obrak zenbat orduko dedikazioa eskatzen duen adierazi beharko da ere, eta argi utziko da zenbat ordu behar diren proiekturako konprometitutako lanak burutzeko.

4.– Doktoretza-tesia egiteko kontratatutako pertsona bada (prestatzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikulua arabera), finantzatzen duen erakundearen izendapena aurkeztu beharko du, zeinetan honako hauek adierazi behar diren: finantzaketa-epealdi osoa, deialdi honetan eskatutako proiektuari urteko zenbat ordu dedikatu zaizkion (ziurtagiria), ordu horiek bateragarriak eginik doktoretza-tesiari buruzko proiektua gauzatzearekin, tesia eta proiektu-jarduera zenbateraino gainjartzen diren (portzentajea), eta tesia zein zentrotan egin behar duen. Proiektu-eskabide bakoitzean, doktoratu aurreko ikertzaile bakar batek bakarrik parte hartu ahal izango du.

5.– Ikerbasque Fundazioak Research professor edo Research fellow kategorietan kontratatutako ikertzaileak, baldin eta erakunde bati atxiki badira, erakunde horretako plantillako bezala hartuko dira, deialdi honi dagokionez. BERC programara atxikitako EHUko irakasleak, BERC-ko plantillako kontsideratuko dira, urteko dedikazio eta epealdi jakin baterako, eta horiek adskripzio-agirian zehaztuko dira; bestalde, guztizko lan-dedikazioak, EHUUn egiten dituen funtzioak barne direla, ez du egingo urteko 1.600 orduetik gora.

6.– Ikertzaileak ezin izango du parte hartu deialdi honetako eskabide bat baino gehiagotan. Eskabide batera baino gehiagotara aurkeztuz gero, ohartaraziko zaio ezen aukeratu egin behar duela haietarik zeinetan parte hartuko duen (bakarrean).

7.– Ezingo dute parte hartu deialdi honetan aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuetan parte hartu edo parte hartzen ari diren ikertzaileek, baldin eta 2014ko abenduaren 31rako ez badituzte euren jarduerak amaitu, oraindik hainbat eginbehar betetzeke dituztelako, emaitzen argitaratzea salbu. Baldin eta proiektu bat onartu zeneko azken eguna baino lehenago deuseztatzen bada, horretan parte hartu duten ikertzaileek ezingo dute parte hartu proiektu berrietan, harik eta proiektua onartu zen unean emandako azken epea betetzen den arte. Zirkunstantzia horretan dauden proiektu-eskabideei ezezkoa emango zaie.

8.– Proiektuak irauten duen bitartean, gutxienez hiru pertsonak osatuko dute talde ikertzailea; horietatik, gutxienez bik doktore titulua izan beharko dute, taldea zuzenduko duen ikertzaile nagusia horietako bat izango delarik.

Gainerako ikertzaileak ikertzaile laguntzaile izango dira; horretarako, gradu, lizentziatura, ingeniari-tza edo arkitekturako tituluaren jabe izan beharko dute.

9.– Erakunde eskatzaile bakoitzeko ikertzaileen, proiektuari dagokionez, gutxieneko dedikazioa urteko 1.400 ordukoa izango da; talde bakoitzeko ikertzaile nagusiaren gutxieneko dedikazioa urteko 420 ordukoa izango da.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Deialdi honetan, honako kontzeptuetarako eska daiteke laguntza:

a) Laguntzaileak:

Deialdi honetan, laguntzaile bati ordaintzeko diru-kopurua finantzatu ahal izango da. Hauek izango dira baldintzak:

Laguntzaileen lanaldi osoagatik, hau da, urteko 1.600 ordugatik, ordaindu beharreko kopurua urteko 15.500 euro izango da. Proiektuari denbora gutxiago eskainiko balitzaio, ordaindu beharreko zenbatekoa proiektuari eskainitako denboraren araberakoa izango litzateke.

Laguntzaileak honako baldintzak bete beharko ditu: gradu, lizentziatura, ingeniari edo arkitekto titulua izatea; deialdian parte hartzen duten erakundearen plantillakoa ez izana lehenagotik; ez jasotzea dirurik beketatik edo beste ikerketa-proiektu batzuetarako diru-laguntzarik, ezta soldatarik edo bestelako diru-sarrera publiko edo pribaturik ere. Proiektuak dirauen bitartean, zeregin horietan pertsona bera aritzea komeni bada ere, gutxienez urte batez egon beharko du.

b) Material inbentariagarria:

Kontzeptu horregatik ez dira urteko 18.000 euro baino gehiago ordainduko; betiere, kontuan izanik, deialdian ez dela finantzatzen BEZaren gastua. Proiektuaren kargura eskuratutako ekipamendu bakoitzak 18.000 eurotik beherako kostua izango du, eta erakunde onuradunaren inbentarioan jasoko da. Espresuki uzten dira kanpoan altzariak eta instalazioak, baita kudeaketarako ekipamendu informatikoa erostea ere.

c) Material suntsikorra:

Kontu-sail horretan ez da mugarik izango, baldin eta behar bezala justifikatuta badago eta proiektuaren jardueretan beharrezkoa bada. Finantziatutako kanpo da bulegoko material orokorra.

d) Bidaiak:

Proiektuko jarduerak burutu ahal izateko egiten direnak. Bidaia-gastuak onartuko dira, proiektua betearazteko azken urtean lortutako emaitzak erakusteko, betiere ikertzaile-taldeko pertsona bakar batentzat.

e) Bestelako gastuak:

Finantzatutako urteko aurrekontuaren % 5eko balio maximoaren barruan, aurreko kontzeptuetan jaso gabeko gastuak finantzatu ahal izango dira, betiere proiektuaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak direla justifikatzen bada.

2.– Elkarlanean egiteko proiektuei dagozkien eskabideen kasuan, kontzeptuetarako aurreikusitako diren mugak honako hauei aplikatu zaizkie: parte hartzen duten erakundeetako bakoitzari, modu independentean.

6. artikulua.– Ikerketa-proiektuen baldintzak.

1.– Proiektuek urtebete eta hiru urte bitarteko egikaritze-aldia izango dute, eta, ondoren, azken urtearen ondorengo lau hilabeteko epe gehigarria izango dute; epe horretan, 16. artikuluan aipatzen diren amaierako gastu-egiaztagiriak eta zientzia-txostena entregatu beharko dituzte.

2.– Deialdi honi dagokionez, proiektuak 2015eko ekitaldian hasiko dira, emandako diru-laguntza onartu ondoren, betiere 16.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta 2018ko ekainaren 30a baino lehen amaitu beharko da egikaritzea.

3.– Deialdira aurkezten diren ikerketa-proiektuek II.eranskinean zehazten diren printzipioak bete beharko dituzte.

7. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau EHAAan argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

2.– Eskaera egiteko, eskabide-orria erabili beharko da; eskabide-orri hori, berriz, modu telematikoz lortu ahal izango da, EAEko herri-administrazioaren egoitza elektronikoa: (<https://euskadi.net>). Horretarako, eskabidea elektronikoki sinatzeko erakunde-txartela izan beharko du erakunde eskatzaileak, eta, halakorik ezean, legezko ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien Erregistroan alta eman beharko du (Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioari sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua, esteka honetan: [https://euskadi.net/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza\\_ordezkarien\\_erregistro/es\\_egoitza/egoitza\\_representantes.html](https://euskadi.net/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza_ordezkarien_erregistro/es_egoitza/egoitza_representantes.html)). Proiektuko eskatzaile eta ikertzaile nagusi denak, erabiltzaile gisa, alta hartuko beharko du aplikazioan edo ziurtagiri elektronikoa pertsonalaren bidez sartu (esate baterako, NAN elektronikoa), eta aplikazio horretan zehaztutako jarraibideak errespetatu beharko ditu. Parte hartzen duten ikertzaileak NANaren bitartez identifikatu beharko dira, eta, eskabidean parte hartzean, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari (deialdiaren organo kudeatzaileari) baimena ematen diote identitate-datuak egiazta ditzan, eskudun administrazioan, hain zuzen ere bitarteko elektronikoen bidez edo eskura diren beste bitarteko batzuen bitartez.

3.– Behin eskabide telematikoa zehaztaperen guztiekin bete eta agindu honetako 1. eranskinean zehaztutako dokumentazioa aplikazioari gehiturik, erakundeak edo legezko ordezkariak aukera dezake izapideetan aurrera egitea bide elektronikoen bidetik ala paperezko formatuaren bidetik.

4.– Izapidetzea paper bidez egin nahi izanez gero, aplikazioak sortzen duen eskabidea inprimatu beharko da, eta erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatu beharko du. Paperezko formatuan, manuzko agiri guztiekin batera aurkeztu beharko da eskabidea, artikulua honetako 7. paragrafoan zehazten den lekuan. Bide telematikotik aurkeztearen alde egiten bada, erakundeak edo legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko du eskabidea, betiere 2. paragrafoan zehaztutakoarekin bat etorriaz, eta orduantxe bakarrik geratuko da erregistraturik eskabidea.

5.– Datuak aipatu gabe uzteak, aldatzeak edo eskatutako informazioaren edo eskabidea egiteko aplikazio telematikoa datozen dokumentuen erabilera okerra egiteak eskabidea ezestea ekarriko du.

6.– Nolanahi ere, eskarian erantzukizuneko adierazpena ere sartu behar da, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikulua 6. paragrafoan agertzen dena (legegintza-dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen da, Euskadiren 2011ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bidez sartu dena).

7.– Paperean egindako eskabideak honako helbide honetara bidali beharko dira:

Eusko Jaurlaritza  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Zientzia Politikarako Zuzendaritza  
Erreferentzia: Ikerketa-proiektuak  
Donostia kalea, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

edo Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan zehaztutako erregistroetarik edozeinen bidez edo zuzenean, betiere deialdian eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barruan. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 38.4 artikuluan aipatu edozein bulegotan ere aurkeztu ahal izango dira, eta bai Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan (Zuzenean) ere: Bizkaian, Kale Nagusia 85; 48011 Bilbao; Gipuzkoan, Andia kalea 10-behealdea; 20003, Donostia; eta Ramiro de Maeztu kalea 10-behealdea; 01008, Vitoria-Gasteiz.

8.– Lankidetzaproiektuak badira, 3. artikuluan zehaztutakoak izango dira erakunde parte-hartzaileak, eta eurentariko bakoitzak eskatzaile gisa jardungo du. Parte hartzen duen erakundeetako bat, gainera, proiektuaren koordinatzailea izango da, eta proiektuaren garapenaz arduratzeaz gain, bere gain hartuko du Administrazioarekiko elkarriketak eta harremanak izateko funtzioa. Zirkunstantzia hori espresuki jaso beharko da eskabidean, eta horretaz gain, zehaztu egin beharko da zeintzuk diren erakunde laguntzaileak. Eskabidearen parte hori bete ostean, erakunde laguntzaileek euren eskabidea egin beharko dute, zeina erakunde koordinatzailearen proiektuari lotuko duten.

8. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea, Ikerketa Proiektuen Zerbitzuaren bidez.

9. artikulua.– Jakinarazpenak eta aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

1.– Betetzeko epea ezarri behar duten jakinarazpenak badira, hala nola zuzenketa eskatzekoak eta deialdiaren ebazpena jakinaraztekoak, honako prozedura honen bitartez egingo dira:

EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://euskadi.net>) aipatu ebazpena argitara emanez egingo da jakinarazpena. Epeak zenbatzeko ondorioak sortzen dituen data izango da jakinarazpen horrena ere.

Jakinarazpen-era horretaz gain, honela ere egingo da: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) egoitza elektronikoa-  
ren iragarki-oholean ediktu bat argitaratuaz.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak interesdunei bidali ahal izango dizkie egindako jakinarazpenei buruzko abisuak, SMS edo posta elektronikoa bidez. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

2.– Punturen baten, agindu honetako goragoko paragrafoetan eskatutakoa ez badute betetzen eskabideek eta dokumentazioak, sinatzaileari zera eskatuko zaio: 10 eguneko epean, akatsa zuzentzeko edo manuzko agiriak aurkezteko, ohartarazten zaiolarik ezen, hala egiten ez badu eskabidean atzera egin duela kontsideratuko dela, betiere alde aurretiko ebazpena delarik, zeina 30/1992 Legeko 42. artikuluan jasotako zehaztapenekin bat etorria eman beharko den (30/1992 Legea: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

10. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Ebaluazio-batzordeko kide izango dira: Zientzia Politikarako zuzendaria (bera izango da lehendakaria), Unibertsitateetako zuzendaria, Ikerketa Proiektuen teknikaria, eta zientzia-ebaluazioko aditu bat edo bi, Politika Zientifikorako zuzendariak izendatutakoak. Aipatu batzordeak eskabide bakoitzari buruzko txostenak eskatu ahal izango dizkie dagokien jakintza-arloan ospea eta ebaluatzeko

esperientzia dituzten ikertzaileei. Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalak edo Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak egin ahal izango dituzte aipatu txostenak. Ebaluazio-batzordeak deialdiko irizpideak behar bezala aplikatuko ditu, eta, bestalde, kasuan kasuko gaiko adituek egindako interpretazioa bateratuko du.

11. artikulua.– Ebaluazio-irizpideak.

Diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamena prestatu ahal izateko, ebaluazio-batzordeak jarraian aipatzen diren irizpideak izango ditu kontuan, eskabideak ebaluatu, aukeratu eta lehentasunen arabera ordenatu ahal izateko:

1.– modalitateko proiektuetarako, 100 puntu eman daitezke guztira:

Irizpideak:	Puntuak
- Proiektuaren interes zientifikoa eta teknologikoa: Proposamenaren interes zientifikoa, ekonomikoa eta soziala, originaltasuna eta izaera berritzailea, egokitzapen metodologikoa eta teknika instrumentalak.	20
- Proiektuaren kudeaketa-plana.	15
- Ikertzaileen kalitate zientifikoa, baita curriculum vitae-an adierazitako argitalpen zientifikoena eta patenteena ere.	15
- Ikertzaileek ikertu beharreko gaien duten eskarmentua.	10
- Lehenagoko deialdietan finantzaturako azken 5 proiektuetan lortutako errendimendu eta zientzia-emankortasunaren maila.	15
- Aurreikusitako finantza-baliabideak ezarritako helburuetara egokitzea eta justifikazioa.	5
- Beste erakunde batek finantzaketa-emaila gisa jokatzea.	10
- Ikertzaile-taldea diziplina anitzekoa izatea.	10
- Guztira	100

2.– modalitateko proiektuetarako, 100 puntu eman daitezke guztira:

Irizpideak:	Puntuak
- Proiektuaren kalitatea: Proposamenaren interes zientifikoa, ekonomikoa eta soziala, originaltasuna eta izaera berritzailea, egokitzapen metodologikoa eta teknika instrumentalak.	20
- Proiektuaren kudeaketa-plana.	15
- Ikertzaileen kalitate zientifikoa, baita curriculum vitaean azaldutako argitalpen zientifiko eta patenteena ere.	10
- Ikertzaileek gaian duten eskarmentua.	10
- Lehenagoko deialdietan finantzatzutako azken 5 proiektuetan lortutako errendimendu eta zientzia-emankortasunaren maila.	15
- Aurreikusitako finantza-baliabideak ezarritako helburuetara egokitzea eta justifikazioa..	5
- Beste erakunde batek finantzaketa-emaila gisa jokatzea.	10
- Taldeen ezagupenak noraino integratzen eta komunikatzen diren helburu komunetan eta proiektuen emaitzetan, eta taldeen artikulazio-maila.	15
- Guztira	100

3.– Ebaluazio-sistema homogeneousatu eta irizpideak aplikatzerakoan objektibotasun handiagoa lortze aldera, deialdiaren III. eranskinean adierazi dira irizpideak zehatzago baloratzeko aldean xehetasunak, ebaluatzaileei euren lanean laguntzeko eta ebaluazio-prozedura gardenagoa izan dadin.

12. artikulua.– Onartutako aurrekontua zehaztea eta laguntzak esleitzeko prozedura.

1.– Diru-laguntzak lehiaketa prozeduraren bidez emango dira, eta proiektuaren iraupen osoari dagozkionak izango dira. Horretarako, ebaluazio-batzordeak egingo du laguntzak esleitzeko proposamena, aurkeztutako eskabideak ebaluatuz.

2.– Ebaluazioan, 50 puntu edo hortik gorako balioespena lortzen duten eskabideak bakarrik finantza daitezke.

3.– Bi prozedura independenteren bidez emango dira laguntzak, bat 1. modalitaterako izango dena eta beste bat 2. modalitaterakoa.

4.– Prozeduretako bakoitzean, laguntzen esleipena honako hau kontuan izanik egingo da: balorazio-fasean proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren ondoriozko lehentasun-ordena; bestalde, laguntzetan zenbateko maximoa emango da, betiere onartutako aurrekontuarekin bat etorriaz eta harik modalitatea finantzatzeko ekonomia-esleipenak agortu arte.



5.– Modalitateren baten ez bada agortzen aurrekontu erabilgarria, beste modalitate bateko proiektuak finantzatzera bideratuko da soberakina; betiere, proiektu horiek, batetik, 50 puntutik gora badituzte, eta, bestetik, hasieran modalitatea finantzatzeko ekonomia-esleipena eskasa zela-eta diru-laguntzarik izan ez badute.

6.– Onartutako aurrekontuak kontuan hartuko ditu 5. artikuluan ezarritako kontzeptuak, eta eskabidean planteatu eta behar bezala egiaztatutako beharren eta 10. artikuluan aipatzen diren adituen gomendioen arabera zehaztuko da. Urteka banatuko da diru-laguntzaren guztirako zenbatekoa, aipatu diren beharren eta onartutako lan-planaren arabera.

### 13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ebaluazio Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari ebazpen-proposamena aurkeztuko dio, eta honek esleitu edo ukatu egingo ditu laguntzak, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ebazpen horren berri emango zaie interesdunei. Jende oro jakitun izan dadin, EHAAn argitaratuko da erakunde onuradunen zerrenda, esleitutako urtekako zenbatekoa, eta, gauza dadin, finantzia-zioa jaso duen programaren titulua.

2.– Onartzen den proiektu bakoitzari buruz datu hauek jaso beharko dira ebazpenean:

- Zein modalitateri lotzen zaion.
- Ikertzaile nagusiaren izena.
- Erakunde onuradunak.
- Ikerketa-proiektuaren titulua.
- Proiektua egiteko izango diren urteetarik bakoitzerako esleitutako zenbatekoa.

Elkarlanean egiteko proiektuak badira, parte hartzen duen erakunde onuradun bakoitzari dago-kion finantzaketa ere jasoko da.

3.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean. Deialdiaren argitalpena amaitu eta 6 hilabeteren buruan ebazpenik ematen edo jakinarazten ez bada, isiltasuna dela-eta eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da.

### 14. artikulua.– Beste diru-laguntza eta laguntza batzuekiko bateragarritasuna/bateraezintasuna.

Diru-laguntza hau bateragarria da helburu berarekin beste erakunde finantziatzaile batzuek emandakoekin. Ikerketa-proiektu batek beste erakunde baten edo Eusko Jaurlaritzako beste sail baten deialdian parte hartzen badu eta zati batean behintzat finantzatua izan bada, beste erakunde horren finantzaketak estaltzen ez duen zatia deialdi honen bidez osatu ahal izango da, baina guztirako finantzaketak ezin izango ditu gainditu ikerketak dituen diru-beharrak. Gainfinantzaketarik detektatuz gero, deialdi honen bidez emandako finantzaketa kopuru egokian txikituko da. Zientzia Politikarako Zuzendaritza beste alderdi finantzaizailearekin harremanetan jarri ahal izango da, kofinantzaketa-akordio bat lortzeko. Nolanahi ere, eskatzaileak argi eta garbi egiaztatu beharko du zein diren kanpoko finantzaketaren xedea, jarduerak, zenbatekoa eta banaketa.

### 15. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzeko baldintzak.

1.– Proiektuko ikertzaile nagusia zein erakunde onuradunari dagoen atxikita, harexeri ordainduko zaio diru-laguntzen zenbatekoa. Proiektua koordinatua bada, parte hartzen duen erakunde onuradun bakoitzari ordainduko zaio.

2.– Urteko zenbatekoak aurretiaz ordainduko dira, egikaritze-faseko urte bakoitzean. Diru-laguntza onartzeko epea, 16.1 artikuluan zehaztua, igarotakoan egingo da lehen urteari dagokion ordainketa. Bigarren eta hirugarren urteko ordainketa aurreratuak egiteko, aurreko urteko txosten urtekoa entregatu beharko da, eta horretaz gain, honako hauek justifikatu beharko dira: helburuak maila egokian bete direla, eta onartutako proiektuko planean aurreikusi bezala gastatu dela diru-laguntza. Proiektua burutzeko azken urtea denean, diru-laguntzaren % 75 ordainduko da aurrez. Azken urteko bigarren ordainketa –gainerako % 25ari dagokiona– 6.1 artikuluan aipatzen den epe gehigarria bete ondoren egingo da, entitate onuradunak dagokion dokumentazio guztia, deialdiaren 16. artikuluan aipatzen dena, bidali ondoren, betiere Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren oniritzia duelarik.

3.– Diru-laguntzaren zenbatekoa abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme erregimenaren arabera bermatuko da; dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura emango diren diru-laguntzen berme eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen da, eta horretaz gain, diru-laguntzen kudeaketan parte hartuko duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta obligazioak ere ezartzen dira.

4.– Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoa ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-betebeharrak eguneraturik izan beharko ditu, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan ezarritakoari jarraituz (1992ko uztailaren 8ko EHAA, 131. zenbakia).

5.– Laguntzeak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz. Interesdunek Nafarroako Ogasunean ordaintzen badiuzte zergak, zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

16. artikulua.– Proiektuaren garapenari jarraipena egiteko dokumentuak.

1.– Ebazpena jakinarazitakoan, diru-laguntzaren urtekako banaketaz informatuko dira erakunde onuradunak. Egoitza elektronikoa (9.1 artikulua) ebazpena argitaratzen denetik harako 10 egun naturaleko epean ez bada egiten uko berariazkorik, erakunde onuradunak diru-laguntza onartu egiten duela ulertuko da. Une horretatik aurrera proiektuak gauzatzeari ekingo zaio, urte bateko, biko edo hiruko aldian, Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

2.– Laguntzaileentzako diru-laguntzarik egonez gero, laguntzailea erakundearekin lotzen duen kontratuaren kopia bidali beharko da, non parte hartuko duen proiektuaren kodea eta titulua jaso beharko diren, baita bere egitekoak eta urteko dedikazioa ere. Kontratu hori ez da izango deialdiaren ebazpenaren aurretikoa. Kontzeptu horrengatik esleitutako diru-laguntza ez bada deialdian ezarritako zenbatekoaren % 100ekoa eta ez badu kontratuaren kostu guztia estaltzen, laguntzaileek beste eginkizun batzuk egin ahal izango dituzte erakundearen, harik eta eurei dagokien dedikazioa bete arte.

3.– Erakunde onuradun bakoitzeko ikertzaile nagusiak, proiektua burutzeko urte bakoitza amaitzean, proiektuaren urteko txosten bat aurkeztu beharko dio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari. Ondokoak jasoko dira txosten horretan: proiektuaren helburuen erdieste-maila, izandako gora-beherak, ateratako emaitzak eta diru-laguntzatik gastatu denaren zenbatespena.

4.– Gastua egiaztatzea: proiektua gauzatzeko azken urtea amaitzerakoan, urteko txostena aurkeztu ondoren, erakunde onuradunak, egindako gastu guztiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, kontzeptuen arabera banaketa adieraziz, eta, gerakinik balego, hori ere justifikatuz. Era berean, proiekturako edo proiektuaren helburu partzialetarako jasotako sarreraren eta egindako gastuen balantzea aurkeztu beharko da. Proiektua amaitu osteko hilabete biko epean aurkeztu behar da ziurtagiri hori.

5.– Azken buruko txosten zientifikoa: proiektua gauzatzeko azken urtea amaitu osteko lau hilabete igaro baino lehen, proiektuko ikertzaile nagusiak amaierako zientzia-txostena aurkeztu beharko du, eta bertan zehaztasun handiz adierazi: aurrekariak, bibliografia, helburuak, metodologia, emaitzak, emaitzen eztabaida, ondorioak eta zabalkunde- eta jendarteratze-jarduerak.

6.– Argitalpenak: proiektuaren emaitzak aldizkari espezializatuetan argitaratzen badira, edo emaitzak honako hauek eragiten badituzte: liburuak, monografiak, artikuluak, doktore-tesiak, lizentziatura-tesinak, kongresuetarako komunikazioak, patenteak, kontratuak, baliagarritasun-modeloak eta abar, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa utzi beharko da jasota, proiektuaren kodea ere aipatuz.

7.– Erakunde onuradunaren legezko ordezkariaren oniritziarekin bidali beharko da proiektuaren jarraipenari dagokion dokumentazio guztia.

8.– Aipatu txostenak egiteko formulario elektronikoak bide telematikoz eskuratu ahal izango dira, EAEko herri-administrazioaren egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.net>.

9.– Urteko txostenaren, amaierako txosten zientifikoaren eta egindako argitalpenen gaineko ebaluazio zientifikoa egin ahal izango da. Dagokien ezagutzaren alorrean ospe eta ebaluazio-esperientzia aitortua duten ikertzaileek egin ahal izango dituzte ebaluazio horiek. Ebaluazioaren emaitza negatiboa bada eta onuradunaren jokaera arau-hauste administratiboa bada, Laguntza eta diru-laguntza publikoen alorreko arau-hauste eta zehapenen erregimena aplikatuko da; hots, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan jasotakoa, horren bitartez onartu da-eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateratua.

17. artikulua.– Diru-laguntza gauzatzeko baldintzak.

1.– Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren jarraibideekin eta agindu honetan ezarritakoarekin bat etorriaz egin beharko dituzte gastuak ikertzaile-taldeko kideek; eta arau horietan espezifikatu gabekoari dagokionez, erakunde onuradunaren diren arau orokorrekin bat egingo dituzte. Proiektuaren diru-laguntzari egotzitako gastu guztiak behar bezala justifikatu beharko dira, baimendutako pertsonentzako jardueren arabera, eta, bestalde, gastuaren faktura eta frogagiri egokien bidez egiaztatu beharko dira.

2.– Proiekturako proposatutako xedeak betetzeko eta helburuak gauzatzeko erabili ez diren zenbateko guztizkoei eta partzialeei dagokienez nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeei eta itzulketei dagokienez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zenbakia) eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio.

3.– Jatorrizko fakturak erakundearen bertan artxibatu beharko dira, eta erabilgarri egongo dira Zientzia Politikarako Zuzendaritzak egin lezakeen edozein egiaztapenerako.

4.– Erakunde onuradunak informazioa eman beharko die Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, hain justu ere erakunde bi horiek, beren eginkizunen barruan eta deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei dagokienez eskatzen dioten informazioa.

5.– Salbuespenez, ikerketa proiektua bukatzea eta, ondorioz, diru-laguntza gastatzea eragotzi duten arrazoiak egon direnean, proiektuaren azken urtea bukatzen den epealdian, ikertzaile nagusiak, erakundeko legezko ordezkariaren oniritziz, proiektua burutzeko eta kreditua gastatzeko epealdia luzatzea eskatu ahal izango dio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari. Luzapenak ez du gaindituko hiru hilabeteko epea, eta eskabide hori egiteko arrazoiak egiaztatu beharko dira.

18. artikulua.– Diru-laguntzen baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, betiere diru-laguntza-ren helburua bete egin dela ulertzen bada, eta, kasua bada, beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako diru-laguntza eta laguntza batzuk ere eskuratu badira, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Ondorio horietarako, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordetzak bidezkoa den likidazio-ebazpena emango du, esleitutako diru-laguntzen zenbatekoak berregokitzeko.

Agindu honetan ezarritakoa ez betetzeagatik urtealdi bakoitzari esleitu zaion diru-zenbatekoa aldatu edo indargabetu behar bada, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuorderen ebazpen indibidual baten bidez jakinaraziko da hori.

19. artikulua.– Diru-laguntzarako eskubidea galtzeko edo itzulketa egiteko kausa.

1.– Diru-laguntza emateko arrazoitzat hartutako baldintzak nola edo hala bete ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoaren Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako zehaztapenekin bat etorriaz.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan azaldutako kausez gain, ondoko hauek izango dira diru-laguntzarako eskubidea galtzeko edo itzulketa egin behar izateko kausak:

1) Ikertzaile nagusiak ikerketa-proiektuari uko egitea edo ikertzaile hori erakunde onuraduna ez den beste erakunde batera edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora aldatzea, baldin eta horrek arriskuan jartzen badu proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortzea.

2) Ikerketa-proiektu bera egiteko, beste iturri batzuetatik jasotako finantzaketak metatzea edo ikerketa-proiektuaren aldakiak, aski justifikatu gabeak, beste erakunde publiko edo pribaturen bati aurkeztea finantzaketa eske, aurrez Zientzia Politikarako Zuzendaritzari horren berri eman gabe eta horrek emandako onarpena jaso gabe.

3) Ikerketa-proiektua proposatu diren helburuetatik eta onartutako epeetatik aldenduz garatzea, Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren baimenik izan gabe.

4) Ikertzaile-taldeko kideek berek proiektuan jarduteko finkatu duten dedikazioa nabarmen ez betetzea, proiektuko ikertzaile nagusiaren kasuan bereziki.

5) Deialdi honetako oinarrien ez-betetze larria (osorik edo zati batean).

6) Datuen ezkutaketa larria, haien aldaketa edo eske-idazkian edozein manipulazio egitea.

20. artikulua.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organi-koarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal

2014ko azaroaren 10a, astelehena

Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, erabiltzea eta argitaratzea parte-hartzaileek baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi horren izena Ikerketa Proiektuak izango da, eta haren helburua diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ematea ere. Fitxategi honen arduraduna Zientzia Politikarako Zuzendaritza da. Sarbide-, zuzenketa-, ezabatze- eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko, Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetara aurkezten diren pertsonen baimena ematen diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren egiaztatzeko, beste erakunde publiko batzuetan.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren pentzutan egingo diren gastu-espeditentak aurrez izapidetzeari buruz Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan aipatzen diren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015. urteko aurrekontu orokorretan alde aurretik behar besteko kreditu egoki egotearen baldintzapean gelditzen da agindu honetako laguntzen ebazpena.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzietako jurisdikzio-organoaren aurrean, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hileko epean.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 9a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## I. ERANSKINA

1.– Eskabidean honako informazio hau jasotzen da:

a) Erakundearen eta ikertzaile nagusiaren identifikazioak.

b) Parte hartzen duten ikertzaile bakoitzaren identifikazioa, non honakoak jasotzen diren: titulazioa akademikoa, kontratu mota (alde baterakoa edo mugagabea) eta kontratatutako urteko dedikazioa.

